

AISIALDIKO NEKAZARITZARI LOTUTAKO ERAIKINEN ORDENANTZA (2003)
(TXABOLAK)

1. artikulua.

Ordenantza honek, lur zati baten aisialdiko nekazal jarduerari lotutako eraikuntza baldintzak arautzen ditu, Udalak duen hirigintz eskuduntza hau erregulatuz.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Aiako Udalerriko lur hiritarezinean.

3. artikulua. Eraikinen kokapena.

Eraikinak, paisaia gutxien eragotzi dezaketen lekuetan kokatuko dira, beti ere, Udal zerbitzu teknikoek, zein hirigintza batzordeak emandako iritzia jarraituz.

4. artikulua. Jarduera onargarriak.

Frutagintza, Baratzagintza eta Abeltzaintza.

5. artikulua. Azalera minimoak eta gehieneko estalpeak.

a) Frutagintza:

—Azalera minimoa: 2000 metro karratu (hemendik aurrera m²).

—Eraikigarria: 8 metro karratutako txabola tresnak gordetzeko.

b) Baratzagintza:

—Azalera minimoa: 100 metro karratutako baratza.

—Eraikigarria: 8 m².

c) Abeltzaintza:

Larra-behiak:

—Azalera minimoa 20.000 m².

—Eraikigarria: Buruko 6 m², gehienez 30 m².

Ardiak:

—Azalera minimoa: 20.000 m².

—Eraikigarria: Buruko 1,5 m², gehienez 45 m².

Hegazti, untxi eta antzekoak:

—Azalera minimoa: 500 m².

—Eraikigarria: Buruko 0,5 m², gehienez 15 m².

6. artikulua. Lurzatien baldintzak.

- a) Jadanik egokitutako bide batekin muga egin behar du eta sarbidea eduki behar du.
- b) Ur iturria beharko balu, hau ere jada eduki beharko luke. Ez baleuka, norbere kabuz lortu beharko luke, herriko ur saretik akometida berririk izateko aukerarik ez lukeelako izango.
- c) Lur zatia partzela batean izan beharko luke.
- d) Partzela bakoitzean eraikin bat egin ahal izango da gehienez.

7. artikulua. Itxiturak.

Lurzatien itxiturak aurrez udal baimena izan beharko dute. Alanbrezko itxiturak galeraziak daude, ganaduarentzat ezik eta kasu hauetan, egurrezko hesolen gehienezko altuera 1,5 m.takoa izango da.

8. artikulua. Eraikinen baldintzak.

a) Orokorrean:

—Errez desmontatzeko modukoak.

—Kokapena Udalak zehaztuko du lekurik egokienean, beti ere Zerbitzu Teknikoen iritzia arabera.

—Gailurrerainoko altuera: 3 m.takoa gehienez. Kasuan kasu ikusiko da eta Udal Teknikariaren txostena kontutan hartuko da.

—Teilatua: Bi isuritakoa. Isuri batekoa lekuak egokiagoa dela erakusten badu onartuko da.

—Materialak:

Hormigoia: Zorua prestatzeko bakarrik onartuko da.

Paretak: Egurrezkoak. Hormigoizko blokea onartuko da erraseatu eta pintatuta bakarrik eta gehienez ere 0,4 m.tako altueran.

Teilatua: Onda dun plaka gorriarekin.

Kapioa: Egurrezkoa bakarrik onartuko da.

Galerazitakoak:

Hormigoizko forjatuak.

Hormigoi armatuzko zapatak.

Burdinezko ateak.

Teilatu planoak.

b) Baldintza bereziak:

—Larra behientzako egiten den eraikina, gutxienez alderdi batetik irekia izan beharko du.

9. artikulua. Baimenak.

Ordenantza honen babesean emandako lizentziak beti behin-behinekoak izango dira, indemnizazio eskubiderik gabe botatzea suertatuko balitz, 1976ko 1346/76 Errege Dekretuak xedatutako lurzorua legeak bere 58.2 artikuluan dionaren arabera.

Obra baimena eman ahal izateko, eskatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu:

—Lurraren jabetzaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du.

—Eskaerarekin batera, batetik, planotxo batean eraikuntzaren kokapena azalduko du; bestetik, eraikuntza beraren azalera eta altuera azalduko dituen marrazkia.

—Lizentzia eskuratu ondoren eta obrei ekin aurretik, txabolen eraikuntza ordenantza honen baldintzak beteko direnaren berme bezala, abala aurkeztu beharko da, beti ere, txabolaren azaleraren proportzioan, jarraian jaso bezala:

- a) lehen tramo: 6 metro eta 15 metro bitarteko txabolek, 100.-euroko abala
- b) bigarren tramo: 15 metrotik gora eta 30 metro bitarteko txabolek 300.-euroko abala.
- c) hirugarren tramo: 30 metrotik gora eta 45 metro bitarteko txabolek 600.-euroko abala”.

10. artikulua. Bestelako baldintzak.

1. Abere guztiak behar den bezala identifikatu eta erroldatuak izan beharko dute.
2. Eraikina jarduera mantentzen den bitarteko iraupena izango du. Hortik aurrera eskubide guztiak galduko lituzke.
3. Eraikinak ahal den izkutuen gera daitezen, Udalak beharrezko diren zuhaitz landaketak egitera behartzeko ahalmena izango du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Ordenantza honekin bat ez datozen eraikinak egingo balira, Udalak bota ditzake, gastuak jabearen gain izango lirakeelarik, 1976ko lurzorua legeak bere 184. Artikuluan eta Hirigintza Disziplina Erregelamenduaren 29. artikuluan dioenaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik sartuko da indarrean.

Jatorrizko eredu: GAO: 2004-II-19

Lehen aldaketa, 9. artikulua (abala): GAO : 2008-V-16